

**BIZITEGI ERAIKINA**  
C MAILA**URBIETA 7**

**Egilea eta data: Jose Clemente Osinalde, 1884**

**Deskribapena**

Jatorriz, behe oina eta lau goi maila zituen; estalki inklinatua eta sarbidea San Martzial kaletik. Oin bakoitza etxebizitza bakarrak hartzen zuen. Lucas Aldayk 1909an egindako lehen eraberritze lanak izkinako begiratokiari eragin zion. Geroago, 1914an, Ataria Urbieta kalera aldatu eta oin bat jaso zuten, bi etxebizitzatan banatuta; eta jatorrizko erlaitza, bere modiloekin, goialde berrira lekualdatu zuten. Ondoren, etxea zabaldu zuten atzeraemandako bi jasoduren bidez. Eraikina fatxadaren konposizio soilagatik nabarmentzen da, neoklasiko isabeldarraren tradizioari jarraituz. Harlanduzko eraikuntza horretan, baoak eta horien balkoiak lotzen dituen lerro multzoaren erliebeak nabarmentzen dira. San Martzial kaleko bi mailen hegalek (bi pare eta erdi bat) jatorriz kale horretan kokatutako antzinako ataria gogorarazten dute (jatorrizko proiektu komuna San Martzial 40rekin eta 42rekin, D mailan).

**Babes erregimena**

## 1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

## 2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: jasodurak (6. eta 7. oinak); arotzeria.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlandua; begiratokia.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzek: hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotuak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.